

• Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektuak funtziona dezan baliabide fiskikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak behar ditu.

Baliabide fisikoak:

Materiala (Burdina), materialarekin produktua osatzeko fabrika edo tailerra, ordenagailua eta mugikorra.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Gartxotek adostasunetara iristeko ahalmena eta arazoitzeko eta besteak ulertu eta konbenzitzeko duen gaitasuna. Izadik jendearekin duen pazientzia, arazoen aurrean zuzen jokatzeko duen gaitasuna eta jendeari laguntzeko ahalmena. Eneko bezeroak erakartzeko eta produktua bereitzeko eta deigarri egiteko duen behar-beharrezkoa den gaitasuna. Nagorek finantzekin duen ahalmena eta gure enpresen diru sarrera guztiak kudeatzeko gaitasuna. Eta azkenik Haitzek duen ahalmen teknologiko zein informatikoa, argazki euskarriekin osatutako sare soziala sortzeko beharrezkoa dena.

Finantza-baliabideak:

Hasiera batean proiektuko bost kideok aurreztuta dugun diru kantitate jakin bat. Produktua fabrikatzen hasteko beharrezkoa dena, ondoren saldu eta diru sarrerak iristeko gure proiektura.